

## **ZUMAIA-DEBA 13-14**

**Irteera:** Martxoak 20. Egun horretan eguraldi txarra izanez gero bigarren aukeran Apirilak 3.

### **Helburuak:**

- Flysch-a ezagutu.
- Sakoneta-ko itsas labarraren ikerketa gauzatu.
- Mendi martxa burutu.

### **Ordutegia:**

- Oiartzunen irteera, 7:45etan.
- Zumaiian abiatu, 8:30etan.
- Debara heldu, 14:30etan. Autobusa 15:30etan hartu.
- Oiartzunera heldu, 16:30etan.

### **Zer eraman irteerara:**

- **Oinetako egokiak:** mendi botak edo treeking-eko zapatak; hau da, mendian, harrien artean, lokatzean edo ingurune hezeetan ibiltzeko balio dutenak.. Inoiz ez, lonazko zapatilak, zapatila zabalak (skate zapatilak), takoidun zapatak, “bailarinas”.
- **Arropa eroso.** Mendi irteera denez, arropa ahal da, nahi gabe, zikindu, hautsi, ...
- **Ura,** litro bat gutxienez.
- **Janaria:** fruitu lehorrak, txokolatea, fruta, eta bokata pare bat. Aurrekoak bidean jateko, eta bokatak, bazkaltzeko. Ohitura osasuntsuak ere lantzen direnez, *litxarkeriak eramatea debekatuta dago.*
- **Linterna:** ilunpean dauden bi tuneletatik pasa behar dugulako.
- **Argazki kamara.**
- **Irteerarako txostena:** irteeraren lan tresna da; beraz, eramango ez duena ikastetxean geldituko da. **Arkatza eta borragoma:** idatzi eta marrazkiak egin behar direlako.
- **Mobila eta musika tresnak debekatuta.**

Irakasle arduradunak: Aitor Okamika, Marisa Fernández